

Mendebalde urrutiko euskal jaiak: Ospakizuna, Herri-Tradizioa eta Historiaren Ber-Egintza

KEPA FERNANDEZ DE LARRINOAK

Cowboy-ak, orainaldian iraganeko mugaren izpiritua adierazten duena, mendebalderantzako hedakuntza errepresentatzen duela ohartuz gero, *rodeo* jaia dugu muga-izpiritu honen ospakizuna. Rodeo jaialdiari urbildu zaizkio antropologoak, eta jendeurrean drama erritual bat antzezten duela jakinarazi dute. Hau da, rodeo jaia, mugako ethos-aren dramatizazio publikoa da, ethos delako hau urrena delarik: burujabetasuna, indarra eta nazio-erakintza (ikus Stoeltje 1987; Lawrence 1982).

Amerikatar Mendebaldeko estereotipo herritarrez orain arte argumentatua ikuspuntu eta erreferentzipuntutzat hartuta, euskal jaiak aurketzen dituzten irudiak marginalak edo bazterretako amerikatar munduari datxezkio-la esan beharrean gaude. Ez zaldirik, ez bakerorik, ez behirik, ez indiorik... hitz batez, ez Amerikatar Mendebaldeko irudi ofizialik. Rodeo jaietako imaginariarik ez da susmatzen ere. Haatik, Europako baserri, Mundu Berriko artzaintza eta Euskal Ostatuetako irudi-projekzioak ditugu.

Irakurleak ikusiko du Euskal jaien estetikotasunaz egiten dudana analistik paradoxa bat azalarazten dela. Euskal jaia Mendebaldeko errepresentazio marginala izanda ere, bazterreko ekitaldi honexetatik amerikatar identitate benetazkoaren bindikazio garbia dator.

DRAMATIS PERSONAE, GIZA JOKAERA ETA AGERTOKIA

1850. urtetik abiatuta aurkitzen dugu lehenengo euskaldunen berri Estatu Batuetan, California-ko urregorri mehatzeiak azagutaraztearekin batera

hasi bait ziren munduko paraje hauetara etortzen. Hasierakoan mehatzegi lanean ari izan arren, berehala jarri ziren artzai. XIX mendearen amaieran nonbait nagusi ziren euskaldunak Mendebaldeko artzaintzan, larre ugariako mendi publikoetara joz. Urtaroaren arauera haratonaldian ibiltzen ziren, hor-han-hemengo larratzeetara artaldea zakurraren laguntzaz gidatuz.

SARRERA

Estatu Batuetako Mendebaldean zehar suertatzen diren euskal jaiak “Amerikatar Mendebaldeko” estereotipotik kanpo geratzen dira. Heuren estetikari begira jarrita, euskal jaiak “arrotzak” dira Ameriketara. Baina, txetxunguru sozialaren aldean aztertzen baldin badugu festibalen irudigintza, ikusiko dugu festibaleko ainboloek “amerikatar” jite eta ulerkeraren nagusien hotsa zabaltzen dutela.

AMERIKETAKO MENDEBALDEA: OSPAKIZUNA ETA IRUDITZA

Frederick J. Turner (1984) eta John Carl Parish (1943:183) historialariek baieztu dute Mendebaldeko muga zutela amerikanoek “etengabeko bizkundera” baten espazio praktikoa eta ideologikoa gaitzat.

Historialari hauen harira, mendebaldeko mugak aurpegi ezberdinak eratu zituen amerikatar zabalkuntzan zehar: indioekin saleroslearen muga, arrantxo-jabearen muga, eta, “zibilizazioarako ibilkuntzaren” azken pausoa, nekazarien muga.

Amerikatar kultura herrikoien historialarien iritziz, Mendebaldeko mugaren inguruan itxuratu zen iruditza garrantzia handiko papera jokatu zuen amerikatarren esperientzien, estereotipoen, estetikaren formaketan, eta nazioaren beraren adierazpenetan ere. Beste modu batez esanda, “nortasun amerikanoaren” nozio eta irudi arrunta, neurri handi batean, Mendebaldeko mugaren esperientziatik hedatu da.

Mendebaldeko mitologia eta iruditza ez ziren lainotu muga territorialak behin betirako finkatu zirenean. Iraun zuten, baina. Gaur egun ere ikus daiteke nola Mendebaldeko estereotipoek autentifikatu edo “jator” egiten dituzten esparru herrikoian behinik behin.

Hollywood-eko filmek, telebistako pelikulek, nobelek eta literatura herriarrek hedatu arazi dute mugako pertsonaia bat, “abelzai gaztea”, *the cowboy*, Mendebaldeko eta neurri handi batean amerikatar nazioaren beraren sinbolo bihurtu dena.

Euskaldunek, beraz, gobernuaren mendiko larre dohainekoaz elikatzen zuten artaldea. Denboraren joateaz, haratonaldiko artzai aldameneko lur jabeen etsai bihurtu zen, bereak ez ziren lurretan eta soroetan sartzaile eta lapurtzat amerikatarrek jo zutena. XIX mende bukaeran hasi eta XX mendean segi, gobernuak legeak baieztu eta estatu bakoitzaren lur usuaren araudi berria sartu izan ahala, lur jabeek laguntza ofiziala aurkitu zuten. Legislazio honek haratonaldiko artzaiari - euskaldun emigrantea, hain zuzen ere - bizkar eman zion. Harez gero, gobernuaren mendiko larreak erabiltzekotan, Estatu

Batuetako hiritargoa derrigorrezkoa zen. Bi bide geratu ziren aukeran: bateko, etxeratu; besteko, Ameriketara geratuz gero, hiritargo amerikatarren nortasun adierazpeni erantsi eta berak erakutsi. Bigarren kasuori atxeki zitzaizkionek lurra erosi, ezkondu, eta nekazaritzan edo abel-hazkeran ihardun zuten, artzaintza alboko utzita. Aldaketa mugimendu honen azalpenik erradikalena 1950. urteetan gertatzen da noiz eta antzematen den euskaldunen artean lanpostu hiritarretan aritzeko inoiz bezalako jokaera bizkortsu eta izugarria. Gauregunean, orduan, Estatu Batuetako euskaldunen gehiengoak - Europan zein Mundu Berrian sortu izanak - hirietan bizi eta hirietan lane giten du.

Herrian herriko euskal ostatuek (*the Basque hotel*, euskaldun batek - lehenago bera ere artzaintzan munduko ari izana - zabalduko ostatu bat) sortarazi zuten artzaintza munduko euskaldunen arteko espazio sozial eta kulturala. Berauen seme-alabek, eta, oro har, geroko euskaldungo hiritarrak, bestelako agertoki sozial eta kulturak hedatu zuten: herrian herriko euskal elk-arteak edo clubak eta haren urteroko jendeaurreko jaia edo festibala. Bi espazio ezberdintasun nabariena honakoan datza: artzaintza munduko euskal identitatearen agertokiak - ostatua, alegia - euskal taldearen barruan bakarrik adierazten zituen "euskaltasunaren" bereiztasunak; agertoki beronen kontraz, gizarte amerikanoaren begira azaldu zuten "euskaltasuna" geroko clubek eta jaiek.

Jendeaurreko lehenengo euskal jaia, *The Western Basque Festival*, Nevada estaduko Reno hirian ospatu zen 1959. urtean, bost mila euskaldun baino gehiago azaldu zirelarik. Festibal honek - berak agertutako antolamenduaren eta eraketaren - egitura zehatza eman zion zerraizkion festibal eta jai publikoen kateari, gaureguneko jai guztien egitura duguna. Jendeaurreko jai honen arduradunen helburua zera zen: artzaintzaren denboralditik euskaldunei erantsitako irudi ezezkioa - orduan ere euskaldunek bizkar gainean neke modura bait zeramaten - deuseztu. Estatu Batuetako Mendebaldean finkaturiko ezagupide eta eremu kultural nagusietan barrena euskaltasuna publikoki adieraziz osatu gura izan zuten antolatzaileek halako asmoa.

Jai honen ondore onari beste festibal eta club gehiagoren antolaketak zerraizkion 1960. urteetan zehar. 1970. urteetan hasi ziren zenbait club elkarrekin harremanak sendotzen, bai eta ere aktibitateak koordinatzen. 1974. urtean California, Nevada, Idaho, Oregon eta Colorado-ko hainbat clubek *North American Basque Organizations* (N.A.B.O.) sortu suten. NABO-ren betebeharrak zera zen: euskaldunei zein erdaldunei (amerikatarra) euskal ohi-turak eta historia irakatsi; eta, eraberean, bai gazteentzat eta bai helduentzat espazio sozial eta kultural bat suspertu. Musika, dantza, euskera, abestiak eta abarreko ikasketak, hala nola udako camping-a, pilota eta mus txapelketak daude NABO-k eratzen dituen ariketa kulturalen artean.

Herrian herriko clubak eta NABO-k, bitzuek, laguntzer dituzte lanez eta diruz urteko zelebratzen diren udaldiko festibalak. Bagenerrake euskal festibalen produkzioaren ondorioa zera dela: etorkizunaren alde, Estatu Batuetako euskaldunek ezagutu zuten iraganaren esperientzietatik jaregin.

EUSKAL JAIK ETA ARDI-IRUDIAK

Euskal jaiak Euskalerriko zein Mendebalde Urrutiko irudiak agertzen dituzte plaza aldera. Datozen lerrootan zehar, euskal jaietan dramatizatzen diren ardi-kanpamentuen aldeamentuen irudietaz ar izango naiz, etorkiz eta ibileraz Estatu Batuetan suertatu diren esperientzietatik hartu izan direnak, hain zuzen ere.

Zenbait irudik Estatu Batuetako artzaintza moeta bereziaren berri ematen diote besta-joalegoari. Artzai bagoiak nonbaiten kokatuta zelebrazio lekuan, bildots arrapaketa, ardi hile-mozketa, artzai-ogiaren prestaketa edo artzaitxakur txapelketek eta erakuspenek ekartzen dituzte ikuslearen kontura euskaldunek Estatu Batuetan ezagutu zituzten bizimodu trazak.

Artzaintzari dagozkion irudiok lengoia literalaren eta ezliteralaren arteko harremanetan barrena aztertzea proposatzen dut, halako itxurapenak intentzio sozialeko metaforak direla azaltzea nire helburua delarik.

“Lengoia literala” diodanean zera eman gura dut aditzera, -ea nolakoak ditugun egunerokotasunean euskaldunak artzaintzari lotarazten dizkioten kontakizunen edukiak. “Lengoia ezliterala” diodanean, ea nolakoak ditugun festibalaren narratiba figuratibo eta metaforikoan barrena euskaldunak artzaintzari lotarazten dizkioten formulen edukiak, esan nahi dut.

Ikusi egingo dugu artzaintzaren eta euskaldunen arteko harremanak ezauguera eta ulerkeria ezberdineko mugarrietara jotzen dutela, modu batez egunerokotasunean, beste batez festibalaren hizkuntzan.

Egunerokotasunean adierazten den lotura, eta iharduera erritualean aurkezten duen atxikimendua, diferente “texturatu” egiten direla da argumentuaren abiapuntua. Alde batetik, pribatuki texturatzen dute eguneroko kontakizunek artzaintza/euskalduna lokarria. Bestetik, publikoki. Horregatio, bada bereziketa orokor honetaz gaindi gehaigo esan beharrik.

Desadan, hasteko, texturapen batetik besterako jauzian esangura berri bat ekoizten dela. Esperientziazko ingurugiroaz aldatzearekin Goffman-ek (1974) *keying* edo “gakoa” deritzana azaltzen da:

Konbentzio kopuru bati noakio hemen. Konbentzio kopuru hau dela medio, lehen mailako esperientzi-bornu batean esanguratsua den iharduera jakin bat transformatzen da, eta iharduera horrexetan tankeratutako zerbait berdintsu dela ematen badu ere, partaideek ezberdin ikusten dute (Goffman-ek 1974:44).

Esperientzia-bornu bakoitzak bere konbentzio kopurua dauka. Beraz, konbentzio kopuruak bihurtzen du iharduera ulergarri, iharduera bera bornuaren konbentzio kopuruaren arauera endelegatzen delarik. Ihardueraren esangura partaideentzat zein den jasotzeko, orduan, zer nolako konbentzio kopurua darabilten jakitea “gako” da.

Bateson-i (1972:177-193) jarraikiz, errealitate eta esperientzia ordenu batetik beste batera jauzi egitean kontrast eta paradoxa sortzen da. Ondorioz, Bateson-ek argudiatzen du, “meta-komunikazioa” jeneratzen da.

Euskaldunen errealitate-bornu pribatu batetik publiko baterako saltoan, berez “meta-komunikazioa” parte hartzaileengan jeneratu bakarrik ez, baina berauen esperientziara meta-komunikazioa ekartzeko desira kontziente bat dagoela erakustea dut azterketaren buruan.

Gure kasuan, behinik behin, festibaleko lengoia erritualak meta-komunikazioa sortarazi nahi du, nahiak funtzezko papera jokatzeko eta. Meta-komunikazioa berez sortu bakarrik ez, baina sortarazi gura, helburu, alegia.

Estatu Batuetan gaur egun bizi diren euskaldunen bizimoduaren deskribapena hiritarra da. Euskal komunitate haundienak Boise-koak eta San Francisco-koak ditugu. Eraberean, euskaldun asko bizi dira Reno-n edo Los Angeles aldeko auzoetan, bai eta ere tamaina txikiagoko hirietan.

Honela izanik ere, bai hiriko euskaldunentzat eta bai urrutiko arrantxo. Baileratan bizi direnentzat ardiak, oraindik ere, gomuta bizkorren ekarleak dira. Gaur egun, nahiz eta paisaiatik ia desagertu diren, ardiek irudi sendo bat tankeratzen dute, euskal taldearen historia kolektibo moeta bat markatzen duena.

Hasiko natzaio diskusioari adibide batzuren hariak. Exempluen bitartez, Ameriketara jaio eta hazi diren zenbait euskaldunek nola ikusten dituzten beren ardiekiko harremanak erakutsi gura ditut.

Itxaron-gelan egon nintzen zenbait minutuz. Zazpi probintziak erakusten dituen harmarria ikusten dut paretatik zintzilika. Pixkat geroxeago, Juan Miguel azaltzen da [Juan Miguel hiriko euskal elkartearen partaide gogatsu eta langilea da]. Berandu zelakoan parkatzeko eskatzen dit, paziente batekin ibili da-eta lanpetuta [haginlaria da Pedro Manuel]. Haren semea ezagutzen dut. Elkarrekin lanegiten dute. Lantokia erakutsi eta bere bulegora eramana nau. Hemen egiten dugu elkarriketa. Mahai luze bat dakusat, paperez beterik, liburuak hor-han-hemenka. Fitxero gainean ardi iruditxo bat deskubritzen dut (Nire ohar-liburutik hartua). (Juan Manuel Ameriketara sortua da, eta aita du urte askotan artzaintzan ibilia).

Hona hemen Juan Manuel, pertsona ogibide liberalduna, bere euskal nortasuna erakusten duena: batetik, publikoki itxaron gelan Europako zazpi probintzia; bestetik, pribatuagoki beraren bulego partikularrean Ameriketako ardiak. Beste bi kasu azaldu nahi nituzke hona:

Concharen [Ameriketara sorturiko emakumea, bertako euskal clubeko partaide] ikurriñako koloreak dauzka hor eta hemen kotxean zehar. Pozik dio euskalduna dela, eta tamaina txikiko gauza bitxiak, gorri-berde-zurizkoak, erakusten dizkit frogagarri ikus ditzan. Haren etxean, paretatik zintzilika koadro handi bat dago egongelan. Koadroan ardiak besterik ez dago. Zerbait diotsat koadroaren edukia dela-eta, Conchak honelaxe ihardesten didalarik: dendan ikusi nuen eta, badakizu, gustatu zitzaidan. Erosi nuen, zergitik?, badakizu... euskaldunak eta ardiak... (Nire ohar-liburutik hartua).

Haren gurasoen etxera heldu ginen. Egutegiak, koadroak eta irudiak, ardiak errepresentatzen zituztenak, etxeko sukaldean eta egongelan ikusi nituen. Honez galdetu nien. Alabak zera esan zidan: "Aitaren lagunak bisita egitera etorri, eta nola aitonaekin arrantxoan ibilia bait da arditan, bromari eta txantxari ekiten zioten aitaren lepo. Azkenean, etxeko lekuero ardiak begibistan ezartzea erabaki zuen" (Nire ohar-liburutik).

Lekukoon aruera, esan dezakegu oraindik ere ardiak direla Ameriketara jaiotako euskaldunentzat irudi biziki azentuatua, lehenagoko talde-mugak gogora ekarriz, iraganaren esperientzia pertsonalak azaltzen dituzte eta.

Euskalerriko baserrietik abiatu, Mundu Berriko artzaintzan ari, eta azkenez hiriratu den etorkinari begiratu behar diot oraingoan.

Euskal ostatu batean afaltzera gindoazen [zenbait euskal emigrante eta ni]. Harakoan artalde txikia ikusi genuen bide ertzean. Guretako batek "hi, lagunak hemen dituk, hi!" esanik, ardi kontuei lotu zitzairen adiskideak. Halako batean batek niri begiratu eta esan "hogei urte neuzkan hona etorri nintzenean. Lau urte pa-

sa nituen arditan hor mendian. Lau urte ardi aluak eta nerau elkarrekin eta bakarririk mendian ahaztuta. Etorri baino lehen ez nuen sekulan arditan ihardun eta ideiarik ez neukan zertan zen. Ugazabak esan zidan "Horra hor artaldea, mendira eramanez, heurek emango dizute itsultzeko garaia noiz den traza". Bizitzako urterik onenak, noiz egingo ote nuen alde artaldetik, beste nonbaiten lanik bilatuta, pentsetan pasa nituen" (Nire ohar-liburutik).

Aukera ugari izan nituen euskal emigranteekin berba egiteko. Mementu informal haietako diskusio eta kontuen tirabirek zenbait gai aipatzen zituzten, laburrean esanda hona dakarzkidanak ¹: askok lehenengo aldiz ihardun zuten artzai moduan Ameriketara joatean ²; artzaiaren bizimodu txarra mendian, gizatarrik eza hain zuzen, alde ezinezko tema zen ³; artzaiaren - bateko - eta ardien nagusiaren edo ugazabaren - besteko - artean sortzen ziren arazoak mintzagai luzea zituzten, artzaiak bere burua engainatuta sentitzen zuela behin baino gehiagotan, bai inglesa ondo ez zuelako hitzegiten bai kontratuaren berri ez zekiela; eta ⁴ ardien eta artzaiaren arteko harreman sexualerik txiste eta aipuak barra-barra entzuten nituen.

Azkenik eta laburki, arrantxo munduan nola perzibitzen diren ardia eta beronen lokarria euskaldunarekin dut ihardun-gai. Esan bezala, nahiz eta ardiekin hasi, nekazari edo betzai bihurtu ziren Mendebaldeko arrantxoetan geratu ziren euskaldunak. Hala ere, bada ardirik etxe ondoan:

Etxeke andreak egunkaririk hartutako horrialde batzu erakusten dizkit. 1960. urteetako da periodikua. Artikuluak ardi transakzio batez dihardu. Dionez, aldameneko bailerako azken artaldea saltzen da. Ardiak bisitatzen ari nintzen jendearenak ziren. Galdetu nien: "Orduan, ardirik ez al dago harez gero?" "Beno - hasi zen etxeke andrea - transakzio hark ardi negozioaren azkena markatu zuen. Ardia ez zen dirubide. Ardirik bada, ordea, hemen bezala. Hor eta hemen ikus dezakezu ardirik, ez bada ere izaten zen modura. Orain etxeke ditugu. Ez dugu ikusten gurean? Egunkarian duzun artaldea saldu eta hona etorri ginen bizi izatera, erretiraturata. Ez dugu lanegiten oraingoan, zahartu gara eta. Hala ere, ikusten duzunez, larre ona da etxe ondokoa, beraz, ardi buru batzu mantentzen ditugu, gutxi. Etxeke.

Ezkont urtemuga ospakizun batean, Nevada-ko arrantxo-alde baten herriburuan zelebratua, bertan jaiotako arrantxo-jabe askorekin hitzegiteko aukera izan nuen. Honakoa hantxe gertatu zen:

Kepak:	Zergaitik ez dago ardirik gaur egun?
Tony-k:	Beltzainak ez zuen maite eta.
Kepak:	Maite zenuen arditan aritzea?
Tony-k:	Noski baietz. Ardia behia baino ohea da. Orain ere lanegingo nuke ardiarekin, behia alde batera utzita, posible balitz.
Kepak:	Zergaitik ez da posible?
Tony-k:	Dakizunez, ardiak ez du deus ere balio gaur egun.

Esan dezagun laburpen gisa ardiak orain ere direla indarrezko irudi bat euskaldun asko-arentzat. Gaurko euskaldunak neurri handi batean bere burua ezagutzen du lehenengo etorkinaren itzalaz eta hegiatz: artzaintzaren munduan ikasitako eta bizi izandako esperientziak. Badago, beraz, atxikimendu sendo bat, lokarri bat ardiaren eta euskal taldearen artean, taldearena dena, pribatua.

Beste alde batetik, atxikimendu delako hau paradoxen iturburu da. Ikusi dugunez, ardiaren eta euskaldunaren arteko lokarria txiste eta bromako kontua da hiri kontextuan, baita ere gomuta txarren ekarle arrantxo-aldeetan.

Ezezko epitetoak eta jarrera ukakorak oraindik gogoratzen dituzte euskaldun helduek. Ambiguotasun handia dario, orduan, ardien irudiari.

Egunerokotasunera zuzendu begirada eta, tirandura bat jaso dugu: taldean barna itxuraz onartzen den ardiarekiko atxikimendua anibalentziaz begiratzen zaio taldeaz kanpotik. Bi aldeko egoera hau gehiago astindu behar dugu.

Festibaleko programek “amerikatar hiritarrak”, *American citizens*, diote behin eta berrero euskaldunen aurkezpena botatzeko tenorea datorrean. Eraberean, Estatu Batuak aipatzerakoan “gure herria” edo “gure nazioa”, *our country*, idazten dute. Festibalek berek botatzen dituzte baiezpen hauek berarek lengoia berezi baten bitartez: irudiak eta metaforak.

Euskaldunak bidezko eta legezko amerikatar hiritarrak direla da Euskal jaien helburu bat. Alegia, euskalduna etorri berria ez, baina aspalditik, nazioaren beraren eraikintza hasi zenetik, amerikatar “lurrean” errota dela esan nahi da. Hau dela eta, festibalak esperientzia pribatu bat ezaguera publikora dakar.

Mezua “amerikatar hiritarrak gara” da. Baina, esperientzia bornu batetik bestera - eguneroko esperientziaz narrita erritualera, hain zuzen - jauzi giteak ez du berez mezu kausitzen. Iraganbideak ez du mezua sortzen.

Arestian esan dudanez, euskaldunen eta arden arteko lokarria problematikoa zen iraganean, lokarria amerikatar gizartetik ikusiz gero. Beste alde batetik, lotura delakoa ironiaz eta paradoxaz definitzen da oraingoan. Mezua beraz ez da tema pribatu bat plaza publikora ekartzearen ondorioa, baizik eta iraganbidearen “gakoa” zein den. Jauzia nola “giltzaten” den, hain zuzen ere. Irudiak aurkezten dituzten bornuak nolako, identitate definizioak eta adierazpideak halako, alegia. “Artzaiaren Monumentu Nazionala” aztertuz, argiago ikusiko da zertan naizen.

ARTZAIAREN MONUMENTU NAZIONALA

Euskal artzaiari oroigarri nazional bat eraikitzearen proposapena 1985. urtean etorri zen. Ideia hau euskaldunen eta talde euskaldunarekin harreman itxietan zenbiltzanen lagun batzuren artean sortu zen. Batzorde iraunkor bat lanean hasi zen 1987. urtean, zeina arteetan, Unibersidadean, euskal elkarreketan ibilitako jendearen eta pertsona independenteen inguruan tankeratu bait zen. Monumentu aldeko komite honek, lehiaketa publiko baten bitartez, Euskalerriko eskultore famatu baten egitasmoa erabaki zuen garaile. Reno hiriko ordezkoez profektua onartu eta bertako parke batean oroigarria eraikitzeke baimena eman zuten. Monumentugaiak ¹, abstrakzioaren hizkuntza artistikoa dela medio, elementu askultural eta arkitekaturalak konbinatzen ditu. Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria, euskal etorkiko USA-ko Senatore bat eta California, Nevada eta Idaho-ko Gobernadoreak ziren batzordeko Ohorezko Mahaiburuak. Komiteak liburuxka eman du argitara,

1. Ikarlanean ari nintze garaian Euskal Artzaiari Oroigarri Nazionala egitasmo bat besterik ez zen. Monumentua erreallitea da gaur egun.

non oroigarriaren helburuak zein diren adierazten bait dira. Hauxe irakurtzen dugu liburuxkan:

Nazio haundi honen eraiketan euskaldunek emana oraindik ere dago ezagutzeko. Oraintxe bertan dugu aukera ederra zerbait egiteko gure lekukotasuna ikusgai bihurt dadin maila nizionalean. Nola? Leku estrategiko batean monumentu bat eraikiz. Oroigarri honek euskaldunen, belaualdiz belaualdi pais honetara etorriak, esfortzu eta nekeak sinbolizatuko ditu.

Monumentuak beraz Ameriketako Mendebaldeko historian euskaldunentzako toki bat asmatu nahi du:

Amerikatar Mendebaldea irekitzearen prozesuan irudi legendarioak izan zirenen artean - arhehiztaria, india, bakeroa, meatzaria, aintzin-arterlaria - euskal artzaia da gutxien ezagutzen dena historian.

Bakarrrik mendian eta basamortuan, neguko haize, uda gori, hondakari eta barkadarekin jasotako probak ez zituzten historialariek aipatu merezi bezala. Batez euskal jitea zegoen, kontu publikoetatik alde eginez.

Hala ere, mendebaldeko artzaintzaren industriako gako bihurtu zen ikusezin eta ia ezezagun zen euskal artzaia (aipatutako liburuxkatik hartua).

Areago, nazioan zehar konpartitutako historia baten barruan kokatu nahi ditu monumentugaiak euskaldunen esperientziak, etorkin guztien esperientziak direla azpimarratuz:

Egun, arrantxo munduan artaldi gutxi eta sakabanatua egonik, euskal artzaia desagertzen ari da. Denbora joan denborak etorri, haren lekukotasuna azkar ahaztuko ote den eta berarekin Mendebaldeko historiara berak egindako kontribuzioa galduko ote den beldur gara.

Halako ukamenari aurre egiteko, oroigarri nazional iraunkor bat eraikitzea proposatzen dugu, Estatu Batuetarako euskal kontribuzioak gogora ekartzen dituen. Modu askotara, monumentuak nazio denetako etorkinak ezagutaraziko ditu, nor Estatu Batuetara jin bait dira aukera eta bide berri bila (delako liburuxkatik hartutako aipua).

Ohartu dugunez, ardiekiko ihardueratik lotzen zaizkio euskaldunak "Amerika" nazioari. "Amerikatasuna" nozio honen harira jarraikiz - hau da, nazioaren eraikintzan partaide gogotsutzat burua eragutu, erroto eta ezagutaraztea - euskal jaietan zehar azaltzen diren ardi kanpamentuen irudiak ikusten ditugu.

Festibalaren narratibak, beraz, bornu jakinetan barrena, mundua eta gizabanakoen historia ezagutzeko ulerpide ofizialak agertzen dituztenak, azalarazten ditu ardi irudiak. Horregatio, euskaldunek ez dute ikusten Ameriketarako lokarria zeharo osatua denik, argi eta garbi dionez Artzaiari Oroigarriaren aldeko liburuxkak. Honi darraikionez, eskaera edo bindikazio kolektiboa balitz bezala irakurtzen dut- festibalak ardi irudiak derala medio jendeaurrera zabaltzen duen "textua".

Orduan, ez da gertatzen *we are Americans*, Amerikatarrak gara, mezua berez darionik euskal jaiari. Festibalak, Euskal Artzaiari Monumentuarekin gertatu den bezala, "seinalatu" egiten du mezua, "harakoa" sortarazi guran.

OSPAIZUN, ERRITUALA ETA IRAGANAREN BER-EGINTZA

Gizartearen eta ekinaldi kulturalaren artean suertatzen- diren hartu-emanak ikuspegi historikoan barrena ezarri behar ditugu. Oro har, bi tema seinatu ditut edazlan honetan zehar: alde abatek, euskaldunen bizimodua Estatu Batuetako Mendebaldean amerikatar ulerkera sozial eta kontzeptzio kultural nagusietara gehitzapen prozesu luze batean barne kokatu dut; eta, beste alde batetik, eranspen delako honexetaz botatuko "kontakizunak" balira bezala interpretatu ditut euskal jaiak. Williams-ek (1980) hauxe idatzi du:

[kultura nagusi bati] eransteko bideak signifikantza sozial handikoak dira. Generalean, hezkuntz instituzioak dira kultura nagusi efektibo baten pasabide edo transzio agentzia inportateenak eta hauxe bera da iharduera ekonomiko eta kultural handi bat; areago, iharduera bitzua dira mementu berean (Williams-ek 1890:39).

Gizarte amerikanoari euskal eranspena talde euskaldunetik bertatik abiatatu zen. Euskal elkarteek definitu zituzten beren helbideak hezkuntz organizazioak zirela azpimarratuz, euskal kultura bai euskaldunei eta bai erdaldunei erakastea zutelarik jomuga. Eta heuren berebiziko testu-liburua instituzionalizatu zuten euskal klubek: ospakizuna.

Euskal jaiak munduaren ezaguera moeta bat zabaltzen dute, iraganaren interpretazio zehatz bati datzekiona. Hiritar eta ingelesdun gizartearen nahastuta eta beste euskaldunengandik aldentuta, desagertzen ari diren bi mundutatik - baserria eta artzaintza - mailegatu dituzte euskal klubek ekinaldi erritualetarako erabiltzen diren portaerak eta narratibaren estetika eta formak.

Mathy-k (1986b) galdetzen du ba ote dugun zirkunstantzia hauen pean nostalgia kolektibo baten itzala. López García-k- (1985) azaltzen du gai berbera hauxe dioskunean: komunitateak gizabanakoak bezala dira, haurtzaroen eratzan dira heuren nortasuna, haurtzaroko gogorapenetara itzuliz ahaztu zorian ikusten dutenetan beren identitatea (López García-k 1985:98).

Nostalgia nozioa, ordea, sakonkiago aztertu behar dugu. Williams-i jarraituz, nostalgiak indikatzen ditu sentimendu ezberdinak ingurugiro historiko ezberdinetan (ikus Williams 1973:12). Argumentazio hari honexi segituz, Zemon Davis and Starn-ekin zera diot:

oroitzapenari hots egiten zaion bakoitzean hauxe itaundu behar genioke geure buruari: nork, noiz, zein kontextutan, zeren aurka? (Zemon and Starn-ek 1989:2).

Zergaitik dago gaur egun euskal komunitatean iragana gogora ekartzeko jarrera bizkor bat? Hauxe argumentatu nahi dut: geroaldian dirateken ondoren imaginatu edo irudituei (ikus Anderson 1983) darie iraganaz ezagueraren eta oraingo ekinaldi erritualetaren arteko signifikantza soziala. Zeren, ohartua dugunez, euskaldunek ez bait diote orainaldiari begiratzen gizarte amerikanoari eranspen-nahiak beteak direneko mementua balitz bezala. Gehitzapena nolabait osatu gabe dago.

Euskal tradizioaren ospakizunak direla euskal jaiak dio bertako herriko prentsak. Tradizioak ez dira praktika naturalak, ez eta ere denboraz kanpoak. Alderantziz, historikoki produzituak eta konsumituak dira. Are gehiago, "asmatuak" dira (ikus Hobsbawm and Ranger 1983). Eta zentzu hone-

tan ulertu behar dugu euskal jaien bitartez plazaratzen den identitate etnikoa (ikus Douglass 1980).

— Euskal jaiari dagokion eremu kulturalaren azterketan Mathy-k (1985b) adierazi du - nola amerikatar ulerkerak, balore eta kontzepzio nagusiekin osatu nahi duen - euskal sistema kulturalaren, batetik, sinplifikapen bat, eta bestetik, hautapen bat bilakatzen dela. Ez euskal sistematik bakarrik, amerikatar sistemarekin berdin gertatzen dela esan beharrean gaude. Eta hona hemen ideologia nagusien arauera definituriko kontzepzio eta mundu ulerkerak gizarteko baz-terretan sortu era bazterretarik bertatik abiatuko bailiran agertzen zaiguneko zergaitia. Itxuren eta edukien arteko erlazioa, orduan, dugu geure aurrean - hots, irudi estetikoak eta nortasun-identitate sozialak ditugu elkari begira jarrita.

Hau dela eta, aukeratutako tradizioaz egin behar dugu berba, edo tradizio zehatzaz, edo esannahia duen iragan jakinaz (ikus Williams 1980). Oroitzapena eta tradizioa berezketa moduz zehaztu eta tajatuta, nostalgia nozio eraginkorrago bati lotzen gaitzaizkio, "oroitzapenak diharduela oztopo eta irtenbideen presiopean seinalatzen duena" (Zemon Davis and Starn-ek 1989:2). Beraz, euskaldunek iraga nari hots egiten diotenean, bai iraganeko, bai orainaldeko, eta bai imaginatutako etorkizuneko oztopo eta irtenbideei egin behar diegu kasu.

Metraux-ek (1976) orainaldian den iraganaren berrikuntza sinbolikoa direla tradiziozko bestak eta zelebrazioak esan du. Callois-ek (1959) eta Eliadek (1954) ohartu dute oroitzarreak oro "sorburura bira egitea" direla. Eta Duvignaud-ek (1976) azpimarratu du jaialdiak eta ospakizunak gertatzen dira noiz eta gizarteak eta komunitateak

zertaz jabetu diren eta iraganarekiko harremani begira heuren buruak nola definitu dituzten ezagutzen kapazak direnean (Duvignaud 1976:21).

Euskal jaiak jende euskaldunaren tradizioak ospatzen dituzte. Iraganeko gomutak dakartzate azalera. Zer dela-eta datxezkie euskaldunak iraganeko oroitzapenei orainaldiko iharduera eta ekintza erritualaren bitartez?

Festibalak bornu kultural bat kreatzen du zeinak narratiba erritualean barrena (erritualak) aipatutako jendeaz ezagutza beregiten da. Clubeko aktibitateak eta antzezkizunak neska mutikoentzat gertatzen dira neurri handi batean. Alde batetik, hok dirateke etorkizunean komunitatearen osagileak. Beste alde batetik, direlako portaera erritualak publikoki gizarte aurrean aurkezten dira. Nolako ezaguera moetarik darabilten? Zernolako lokarria ezartzen dute ⁴ iraganen suertatutako esperientziak ⁵, orainaldiko narratiba erritualak, eta ⁶ helburu edo irudikatzen den etorkizunak, hirurok elkarren artean finkaturiko hartu emanetan?

Txosten honetako hasieran ditut iraganeko esperientziak nolabait azaltzera emanak. Haietan ukamen sozial eta paradoxa kulturala izan dira tema garrantzitsuak. Geroago, narratiba erritualera eta gaur eguneko iharduerara zuzendu dut nire azterketa. Bata eta bestea elkarren aldean jarri eta ukamenaren zergaiti historikoak ditugu euskal taldea gizertera ernasten - edo erantsi nahi - duten elementuak. Iragana, beraren orainaldian barrena, gatazkaz, burrukaz eta- zamazkoa zen. Iragana, orainaldi erritualean, gatazkaz, burrukaz eta zamaz liberatzen da.

Jaialdiak, orduan, iraganetik gomuta liberatzaile eta arazo deskargatzaile bat agertzen du, dakarrelarik “ordezko, ararteko bat, edo falta den zerbaiten finkapena” (Zemon Davis and Starn-ek 1989:3). Bada zerbaiten falta gaur eguneko euskaldunen bizimoduan Amerikatar Mendebaldean, festibalaz gaindi osatu egin nahi dena hain zuzen ere: hots, iraganeko esperientzien gomutak orainaldiko narratiba erritualekin topo egitean sortarazten diren paradoxa eta kontraesanak deuseztea.

Euskal jaiaren bornuan barrena aurreratzen du festibalak iraganeko jatzokuntzek, gaur eguneko diskurtsoari begira, barne-signifikantza handia daukatela: ez gertatuaren gomuta modura, ezta ere haren esperientziak oroitzapen gisa, baizik eta sozialki eraikitako eta gerora zuzendutako interpretazioa bezala ulertuta. Komunitategai diren euskal taldearen seme alaben eta gizarte orokorraren arteko harremanen arloan dira deusezteko iraganeko esperientziaren eta orainaldian jositako narratibaren arteko kontrajarriak.

Euskal jaiak, beraz, ez dute iraganaren ezagutza texturatzen munduaren interpretazio- ofizialaren alternatiba gisa, baizik eta jasotako esperientzien alternatiba bezala. Clubek antolatzen dituzten jaiak direla medio taldearen historizitatea plazaratzen da, eta hau berau Estatu Batuetan kokatzerakoan, euskaldunek ez darabilte interpretazio eremu adierazgarri gisa beren aitamek erabili zutena. Alderantziz, iraganaren herri-bertsio nagusiari dagokion ulerenaren bornuaz baliatzen dira taldearen iragana publikoki ezagutarazteko. Ekinaldi erritualari joz, orduan, iraganeko esperientziak modu berrizatu batez ematen dira aditzera orainaldian, eta jarrera honi jarraikiz, euskal taldeak taldearen historia ber-interpretatzen du.

Ospakizun erritualaren bitartez euskaldunek beren seme alabengana eta gizarte aurrean iraganaren ezaguera zehatz bat iragazten dute. Hala eginez, taldearen iraganeko esperientziak betaurreko berriekin irakurtzen dira, iraganeko ezaguera egokiago bat zihurtatzen dutena. Berriz ere, irudiak eta identidadeak ditugu jokoan. Hona hemen nola besta eta zelebrazioaren bitartez jende talde batek, batetik taldea bera, eta bestetik taldearen iragana, ber-egiten dituela.

BIBLIOGRAFIA

- BATESON, Gregory, 1972: “A Theory of Play and Fantasy”. In *Steps to an Ecology of Mind*. pp. 177-93. New York: Ballantine Books.
- DECROOS, Jean Francis, 1983: *The Long Journey: Assimilation and Ethnicity Maintenance Among Urban Basques in Northern California*. Reno: University of Nevada Press.
- DOUGLASS, William A., 1980 “Inventing an Ethnic Identity: The First Basque Festival”. In *Halcyon*. pp. 115-30. Shepperson, Wilbur S. (ed.) Reno: Nevada Humanities Committee.
- DOUGLASS, William and Jon, Bilbao 1975 *Amerikanuak Basques in the New World*. Reno: University of Nevada Press.
- DUVIGNAUD, Jean, 1976 “Festivals: A Sociological Approach” In *Cultures* 3: 15-25.
- ELIADE, Mircea, 1954 *The Myth of the Eternal Return*. New York: Pantheon Books.
- ETULAIN, Richard W., 1974 “Basques of the American West: Some Problems for the Historian”. Paper read at the *Idaho History Conference*, Boise, Idaho, March 9.
- GOFFMAN, Erving, 1974 *Frame Analysis*. New York: Harper & Row.
- HOBBSAWN, E., and T. Ranger (eds.), 1983 *The Invention of Tradition*. Cambridge University Press.
- LOPEZ GARCIA, Angel, 1985 *El Rumor de los Desarraigados: Conflicto de Lenguas en la Península Ibérica*. Barcelona: Editorial Anagrama.

- MATHY, Jean-Philippe, 1985 *Les Basques-Americaïn et Le Vieux Monde: Migration, Integration, Ethnicité (1850-1985)*. Dissertation Thesis, Ecole des hautes Etudes en Sciences Sociales.
- 1986a "Les Basques in Amerique". In *Société, Politique, Culture en L'Pays Basque*. Bidart, Pierre (ed.). Donostia: Elkar.
- 1986b "Approbation de L'Espace et Identité Sociale: Le Cas des Basques aux Etats-Unis". In *La Production Sociale des Espaces*. Bidart, Pierre (ed.). Université de Pau et des Pays de L'Adour.
- METRAUX, G. S., 1976 "Of Feasts and Carnivals". In *Cultures* 3(1): 7-12.
- WILLIAMS, Raymond, 1973 *The Country and the City*. New York: Oxford University Press.
- 1980 *Problems in Materialism and Culture*. London: New Left Books.
- ZEMON DAVIS, Natalie and Randolph Starn 1989 "Introduction". In *Representations* 26: 1- 6.